

ZEROSETTE

BIDELAGUNEN IBILIBIDEA OSPATU ETA JATORRIETARA ITZULI

2018a berezia izan da Zero Sette Akordeoi Orkestrarentzat. Urteetan zehar, Lasarte-Orian egin duen ibilbidean, herriko lagun eta bidelagun izan direnen urtemugak elkarrekin ospatzeko aukera izan du, hauspoak astinduz, soinua kaleratuaz eta elkarrekin ekitaldiak eskainiaz. Izan dira, baita ere, laguneren mahai oparoen inguruan jolas, kantu eta dantza egiteko aukerak ere.



Hil berean, maiatzaren 25ean, azkeneko urteetako ohiturari jarraituz AZKAINERA joan ziren JAI-BAND erreperorioa hartuta. Herrian ospatzen duten Akordeoiaren Egunean parte hartu zuten beste soinu-jole askoren artean, esperientzia asko zutenak eta baita hasi berriak ere, denek izan bai zuten bere tarteak. Elkarrekin kalejiran kalez kale ibili ziren herriko kaleak alaituz eta herritarren babesa jasoz.

Ahaztu ezinezkoa ekainaren 16an ERKETZ Dantza taldearen 50. urtemugaren ospakizunean Oken-do enparantzan eskaini zen ekitaldia. Sentimendu ugari bertan, hainbat aurpegi ezagun, hainbat ekitaldi elkarrekin eta berriro denak elkar-lanean, pozik, eta lan bikaina eskainiaz. Han izan ziren Alboka Abesbatza, Suberri eta Zero Sette Akordeoi Orkestra, Erketz taldeko lagunek urte askotako lanaren poderioz eskaini zuten ekitaldi bikaina babestuz. Ez dute bertan izan ziren herritarrek azkar ahaztuko.

Lasarte-Oriako ATERPEA Merkatari elkartearen 25. urtemugaren ospakizunetan parte hartzeko gonbitea jaso zutenean pozez prestatu eta eskaini zituzten JAI-BAND kontzertuak. Zumaburu auzoan eta Buenetxea tabernaren aurrean maiatzaren 18an eta 20an hurrenez hurren. Eric Clapton, The Pogues, The Eagles, Joe Cocker, Metallica, Simon & Garfunkel, Stevie Wonder, Coldplay, eta beste izen ospetsuren musika Lasarte-Oriako kaleetan entzun zen gazte eta hurren jolas eta dantza artean, eta baita ere, guraso eta heldu askoren oroitzapen gozo artean.



Reencontrarnos con un repertorio de música clásica ha sido el objetivo del curso, con un buen grado de cumplimiento, ya que el concierto ofrecido en el Convento de las Brígidas nos satisfizo y quedará para siempre en nuestro recuerdo

Urteko gau motzenaren inguruan, SAN JUAN bezperan, suaren inguruan elkartu ziren. Erketz Dantza Taldea eta Albokarekin batera, aurretik pasatako gaitzak erre eta su berriztagarriari ohore eginenez, dantza, kantu eta soinuaz, udako urtaroari hasiera eman zioten, herritar askorekin batera.



Ez ziren egun asko pasa, Erketz taldearen aurrean berriro izan aurretik. Ekainaren 29an, San Pedro egunean, Lasarte-Oriako herriak ondo merezitako omenaldia egin zion Erketz Dantza Taldeari. Han izan zen Zero Sette, urteoro bezala, ekitaldi ederra zainduz.



Udazken betean, azaroaren 10ean XV. LASARTE-ORIAKO AKORDEOI JAIALDIA ospatu zen. Lasarte-Oriako Udalarekin batera Zero Sette Akordeoi Orkestrak antolatzen duen jaialdian Iker Telleria perkusionista, Iñaki Diéguez akordeoilaria eta Oinkari Dantza taldea izan ziren, bakarka eta elkarlanean. Proposamen berritzaileekin hartu zuten parte eta gerturatu ziren guztiak aho zabalik utzi zituzten erabat txundituta eta txalo zaparradak amaitu nahi ezean.

Ez zen gutxiago izan Zero Setteren aspaldiko lagunak diren Sabadelleko Akordeoi Orkestrako kideak. Eskaini zuten kontzertuan, urteetako lanaren ondorioz Orkestrak duen kalitatea agerian utzi zuten, musika espresio bikainean hala nola interpretazioaren zehaztasunean.



Eta urteari amaiera bikain bat emateko asmoz, azaroaren 25ean, Brijiden Komentuan, KONTZERTU KLASIKOA eskaini zuten. Bai lortu ere! Aspaldian kontzertu klasikoa berri gabe zuten eta urte osoan errepertorio klasiko berri bat prestatzen aritu ondoren, txalo zaparrada luze artean agerian geratu zen eginiko lanaren fruitua. Josef Rixnerren Bagatelle, Usandizagaren kuartetoa, Boïeldieu-ren Bagdageko Kalifaren Obertura, Gerhard Mohrren Heimatbilder, Bach-en Jesus bleibet meine Freude eta Jacques Deneuille-ren Overture Française izan ziren besteak beste Brijiden Komentuko kapilaren akustika ederraren laguntzarekin guztion belarriak gozatu zituztenak. Izango da bai kontzertu klasiko hau berriro disfrutatzeke aukera.

